

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Funtsezko baliabideak gure herburua lortzeko daukagun errekursoak dira. Diru sarrerak sortzeko, gure balio-proposameneko eskaintza garatzeko, bezeroarengana iristeko eta haiekin harremanak izateko baliagarri dira funtsezko baliabideak. Hauek hainbat motatan sailka daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak. Horrez gain, baliabide ukigarrietan (baliabide fisikoak eta finantza baliabideak) eta ukaezinetan (baliabide intelektualak eta giza baliabideak) sailkatu daitezke ere.

Baliabide fisikoei erreparatuta, botilak botatzeko kontenedore txikiak jarriko ditugu Gasteizen zehar, espazio irekietan eta itxietan (baimenarekin). Ondorioz, botilen tapoiak eta plastikoa lortuko dugu doainik. Jarraitzeko, kapital hau produktu bihurtzeko makinaria espezifiko bat beharko dugu. Baina prozedura hau aurrera joan dadin leku fisiko bat beharko dugu produkzioa aurrera eramateko eta ondasun eta kapital guztiak gordetzeko. Horretarako lokal bat alokatuko dugu, 500-600 euro/hileko ingurukoa.

Baliabide intelektualei buruz hitz egiten, enpresaren partaide guztien ezagutzak ezinbestekoak izango dira gure garapenerako. Bakoitzak bere esperientzia ezberdinak izan ditu, gutako baten familiak adibidez esperientzia dauka horrelako negozioetan. Beraz, bere laguntza oso baliagarria izango da guretzat. Unax, enpresako C.E.O. (Chief Executive Officer)-a guztion artean aukeratu dugu. Bereziki bere lidergoagatik, baita gure arteko koordinazioa modu egoki batean aurrera eraman duelako, beti taldekideen laguntza baldintza gabekoarekin. Naroa eta Maialen aldiz, produkzioaren eta banaketaren arduradunak izango dira, prozedura hau haien esku egongo da, ondasunak modu oso egoki batean produzitzeko ahalmena daukatelako, baita banaketa zuzen bat egiteko ere.



Giza baliabideak oso garrantzitsuak dira salerosiaren erlazioak zaintzeko. Bada, guztion ardura izango da irudi on bat ematea bezeroei. Halaber, beste entitateekin erlazionatzeko Gorka izango da gure errepresentante nagusia Unaxekin batera, enpresan egin baitzen bozkaketa eta guztiok ados geunden erabaki honekin. Gainontzeko partaideak beti izango dute haien gainbegiratzeko eskubide absolutua. Bestalde, marketing-aren kasuan Gorka izango da arduradun nagusia, bere kabuz jasotako informazio eta ezagutza beharrezkoak dituelako lan hau betetzeko. Dena den, guztion laguntzaz baliatuko da beharlean sentitzen bada.

Amaitzeko, finantza baliabide nagusiak udalari egingo diogun eskaera batetik lortutako dirua eta gure aurrezkiak dira. Gure lehen inbertsioak seguruak eta ziurrak izateko diru nahikoa beharko dugu, horretarako sektore publikoaren laguntzaz baliatu beharko gara udalari gure proiektua azalduz. Ondoren, finantza-kapitalaren eskaera bat egingo diegu. Hortaz, udalaren finantzazioa (3.000 ingurukoa) eta gure aurrezkiak (500euro inguru) izango dira proiektu honen lehen inbertsioen kapitala.